


VILLA TOKI EROSO
D MAILA

HERIZ PASEALEKUA 26



M. Antonio Setien, 1917

Deskripzioa

Jatorri frantseseko udaldiko bizitokien eraginak dauzkan *villa*. Moda hori mende hasieran iritsi zen, eta etxe honek haren ildoetako batzuei segitzen die, esate baterako multzoaren proportzio lirainean, horma pikoek konposizioko motibo nagusitzat betetzen duten eginkizunean, L erako oinplanoan, neurri txikiko estalkiko isurkietan, eta bilbadura-marrazkietan. Jatorritik beretik bi mailako atal bat dago L formaren erdian; ondoren jaso egin dute hori, beste solairu bat eginez alegia, bolumenaren beste alderdiarekin berdindu arte. Atal honetantxe dago jatorrizko sarrera, dagokion estalki eta guztiko pabiloi txiki bat; atzealdean, berriz, beste eranskin bat dago. Etxea, gaur egun, terraza handi baten gainean dago; horren pasealekurako fatxadak bi solairuren altuera hartzen du.

D mailaren berariazko babes araubidea

- 1- Babesetik kanpo lagatako fatxadako elementu edo alderdiak: estalki laua daukan jasodura, atzealdeko erantsia eta terraza.
- 2- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: harrizko elementuak, zurezkoak, eta apaindura emokatuak.
- 3- Esku hartzeko murriztapen partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4- Nahitaezko lehengoratzak: ez dago horrelakorik.